



Berastegiko
Udala



**BERASTEGIKO UDALAREN
2020KO MAIATZAREN 14KO
OHIKO UDALBATZARRAREN AKTA**

Berastegin, Udaletxeko bilera aretoan, aurrez egindako deiaraz, 2020ko maiatzaren 14an, arratsaldeko zazpiak eta laurdenetan, Udalaren Batzar osoa biltzen da ohiko saioan, behean aipatzen diren zinegotziak, Amaia Azkue Eizagirre Alkatearen presidentziarekin.

ALKATEORDEAK:

- 1. Alkateordea: Andoni Zuriarrain Iturbe Jauna.
- 2. Alkateordea: Itziar Atxukarro Otegi Andrea.

EH BILDU:

- Patxi Irisarri Aranalde Jauna.
- Uxue Arzallus Ansa Andrea.
- Mikel Beloki Urkizu Jauna.

BEASTI BIZI:

- Ainhoa Montes Arcaya Andrea.
- Ainara Ciaurriz Azanza Andrea.
- Aitor Lizarza Armendariz

Bertan dago eta fede ematen du Udaleko idazkari kontu-hartzailea:

- Maria Pilar Garmendia Miguel.

Osoko Bilkura legez osatzeko behar adinako kopuruak parte hartzen duela egiaztatu ondoren, presidenteak, 19.15 ordu direnean, bilkura irekitzat ematen du eta gai-zerrendako puntuen azterketari ekiten da.



Berastegiko
Udala



GAI ZERREDA:

- 1.- Alkatetzaren ebazpenen berri ematea.
- 2.- Aurreko batzarrei dagozkien aktei onarpen aurkezpena:
 - 2020ko martxoaren 3ko akta (Ohiko bilkura).
- 3.- Berastegiko Hiria Antolatzeko plan orokorraren bigarren aldaketa, Ahsltrom Munskjö papelera 16 eremuko aldaketa puntualaren behin behineko izaeraz onartzeko proposamena.
- 4.- Berastegiko Ategiko taberna-jatetxea ustiatzeko aukera emakida administratibo bidez emateko prozedura negoziatu bidez arautzeko baldintza ekonomiko administratiboen pleguak onartzeko proposamena.
- 5.- 2020/01 kreditu aldaketa onartzeko proposamena.
- 6.- Ordenatza fiskalen ordaintzeko epeen aldaketa onartzeko proposamena.
- 7.- Erregu eta galderak.

LEHENENGO PUNTUA:

ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.

Azaroaren 28ko 2568/1986, Errege Dekretuaren (ROF) 42. artikuluan xedatutakoarekin bat, Korporazio honen azken ohiko batzarretik gaurdaino eman diren Alkatetzaren Ebazpenen berri ematen da, hain zuzen ere 2020/032tik 2020/060 dekretura doazenak, biak barne, honetaz guztiaz Udalbatza jakinean geratzen delarik.

2020/032	02/03/2020	Obra baimena Unai Mendikute Mendizabal Baratzerako lanabesak gordetzeko txabola eraikitzeko baimena
2020/033	02/03/2020	Obra baimena. Josu Curiel Yarza. Ategi eremuan partzela pribatura sarbidea irekitzeko baimena
2020/034	04/03/2020	O.E. -Erroldan Alta-
2020/035	04/03/2020	Gizarte Larrialdietarako Laguntza R.I.T
2020/036	04/03/2020	Gizarte Larrialdietarako Laguntza I.P.
2020/037	04/03/2020	Tolosaldeko Energia Mahaieko kideak izendatzea



Berastegiko
Udala



2020/038	05/03/2020	2020-03-10eko Ohiko Udal Batzarra Earra food trucki Gazte festen barruan, martxoaren 21ean, hanburbesak, ogitartekoak, saltxipapak,
2020/039	05/03/2020	etab..saltzeko baimena ematea
2020/040	06/03/2020	2019ko aurrekontuaren likidazioa
2020/041	11/03/2020	Ordainketa zerrenda Zkia.03 martxoko fakturak
2020/042	11/03/2020	Euskera ikasteko dirulaguntzak
2020/043	11/03/2020	Obra baimena. Luis Saizar. Danbolinenea baserria berritzeko baimena ez ematea
2020/044	11/03/2020	M.M.M. Erroldan Alta
2020/045	11/03/2020	Ezkututako obrak. Santiago Zubeldia Zubeldia. Poligono 7 partzela 18 baimenik gabeko txabola
2020/046	12/03/2020	Nora Goienetxe baserriaren zatiketa egiteko epea luzatzeko baimena
2020/047	13/03/2020	Irabazi xederik gabeko elkarteei dirulaguntza
2020/048	13/03/2020	Idazkari Oinarriak - 2020.urteko lehiaketa arrunta
2020/049	13/03/2020	I.P. ri Gizarte Larrialdietarako Laguntza zerbitzua eskaintzea
2020/050	27/03/2020	Obra baimena. Munsjko Paper. Bi etxebizitza berritzeko agiritegi bezala
2020/051	30/03/2020	M.J.U.G. Erroldan alta
2020/052	31/03/2020	Ordainketa zerrenda Zkia.04 martxoko fakturak
2020/053	20/04/2020	Obra baimena. Jose Etxeberría Bergaretxe. Txoko Alai etxeko fatxada margotzeko baimena
2020/054	23/04/2020	Obra baimena. Fernando Salbarredi. Etxe ataria txukuntzeko baimena
2020/055	24/04/2020	Obra baimena. Jose Luis Egaña. Elduainalde 5ean berotegi jartzeko baimena
2020/056	27/04/2020	Ordainketa zerrenda Zkia.05 apirileko fakturak
2020/057	28/04/2020	Obra baimena. Lukas Etxeberría Azkue. Gaztañaberrin teilapea eraikitzeko baimena
2020/058	28/04/2020	Uli B 47ko unadetan burutu beharreko egur ustiaketa MADERAS LEIZARAN Sri esleitzea
2020/059	07/05/2020	Obra baimena. Maria Dolores Egües Saizar. Zelaitxo etxean aterpea eraikitzea
2020/060	07/05/2020	Beasti Guraso Elkarreak eskatuta aparkaleku azpiko lokala erabiltzeko baimena

BIGARREN PUNTUA:

AURREKO BATZARREI DAGOZKIEN AKTEI OHARPEN AURKEZPENA.

Osoko Bilkurako deialdiarekin batera honako akta agiriak banatu zaizkie zinegotziei, aztertu eta kasua balitz oharrak aurkez ditzaten:

- 2020ko martxoaren 3ko akta (Ohiko bilkura).

Ainhoa Montesek hitza hartuta, adieraz du akta honetan puntu guztietan kontrato botoa eman zutela jartzen du eta haiek aldeko botoa eman zutela.

Idazkariak barkamena eskatu du akatsagatik eta zuzenduko duela adierazi du.



Berastegi
Udala



HIRUGARREN PUNTUA:

BERASTEGIKO HIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRAREN BIGARREN ALDAKETA, AHLSTROM MUNKSJÖ PAPELERA 16 EREMUKO ALDAKETA PUNTUALAREN BEHIN BEHINEKO IZAERAZ ONARTZEKO PROPOSAMENA

IKUSIRIK: Berastegiko Hiria Antolatzeko Plan Orokorraren AHLSTROM MUNKSJÖ PAPELERA 16 Eremuko Aldaketa Puntualaren behin behineko onarpenerako agiria, Santiago Peñalba eta Manu Arruabarrena arkitektoek eta Mikel Iriondo abokatuak sinatuta, 16 AHLSTROM MUNKSJÖ PAPELERA eremuko hirigintza-eraikigarritasuna zabaltzeari zuzenduta, Plan Orokorrean eremu horretarako ezarritako mugapenari eta lurzoruaen sailkapen eta kalifikazio globaleko baldintzei eutsiz.

IKUSIRIK: 2020ko apirilaren 23an, Udal Arkitekto Aholkulariak egindako txostena, 16 AHLSTROM MUNKSJÖ PAPELERA eremuari dagokion HAPOen aldaketa puntualaren dokumentuari hasierako onarpena ematearen aldekoa.

IKUSIRIK: 2020ko apirilaren 28an, gai juridikoetako udal-aholkulariak, Berastegiko HAPOaren -16 HE Munksjö Paper-Fabrika-, 2. aldaketaren hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioari buruzko txostena, agiriak jasotzen zuen egoera soziolinguistikoaren baliozko inpaktuaren ebaluaketa ontzat emanez.

IKUSIRIK: 2020ko maiatzaren 12an Udal Idazkari-Kontu-hartzaileak egindako Legezko txostena.

KONTUAN HARTURIK: Arau Subsidiarioen Aldaketa Puntualaren lehen onarpena eman eta gero, jendaurreko izapidean ez direla alegaziorik aurkeztu;

KONTUAN HARTURIK: Agiria behin behingoz onartuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeari bidali behar zaio, txosten loteslea egin dezan, lurralde-antolamenduko tresnei egokitzeari dagokionez eta, aplikagarri den araudiaren arabera eta onartutako udalez gaineko proiektuen arabera, Estatuko, Autonomia Erkidegoko edo lurraldeko administrazioaren eskumeneko diren alderdi sektorial guztiei egokitzeari dagokienez.

KONTUAN HARTURIK Ekainak 30eko, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa 2/2006 Legearen 103, 104 eta 105 artikuluek diotena, 90 eta 91. artikuluekin batera;

KONTUAN HARTURIK Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilak 2ko 7/1985 Legearen 22.2c) eta 47.3II) artikuluek jasotzen dutena Udalbatza honek, (aho-batez, gehiengoz)



Berastegiko
Udala



ERABAKI DU:

Lehenago: MUNKSJÖ PAPER SA enpresak eskatuta eta Santiago Peñalba eta Manu Arruabarrena arkitektoek eta Mikel Iriondo abokatuak sinatzen duten, Berastegiko Hiria Antolatzeko Plan Orokorren AHLSTROM MUNKSJÖ PAPELERA 16 Eremuko Aldaketa Puntualaren behin behineko onarpena ematea.

Bigarren: Espedientea, behin behingoz onartzen denetik gehienez 10 egunetako epean, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeari bidaltzea behar den txostena egin dezan.

Hirugarren: Espedientea Gipuzkoako Foru Aldundira bidaltzea, behin betiko onarpena eman diezaion.

LAUGARREN PUNTUA:

BERASTEGIKO ATEGIKO TABERNA-JATETXEA USTIATZEKO AUKERA EMAKIDA ADMINISTRATIBO BIDEZ EMATEKO PROZEDURA NEGOZIATU BIDEZ ARAUTZEKO BALDINTZA EKONOMIKO ADMINSTRATIBOEN PLEGUAK ONARTZEKO PROPOSAMENA

Berastegiko ategi eraikineko taberna-jatetxea ustiatzeko aukera emakida administratibo arautzeko baldintza ekonomiko administratiboen pleguen berri ematen da.

Pleguaren xedea da Berastegiko Ategi eraikineko taberna-jatetxea ustiatzeko aukera emakida administratibo arautzea da.-

Eta besterik gabe bozketa egin da honako emaitzarekin:

Aldeko botoa eman dute: EH-BILDUKO 6 zinegotziak eta BEASTI BIZKO 3 zinegotziak.

Eta gertatutako emaitzaren arabera, ERABAKI DA:

LEHENA: Aurkeztua izan den era berean baldintza plegua onartzea. Akta agiriari pleguaren kopia erantsiko zaio (I. Eranskina).

BIGARRENA: Hartutako erabakiaren berri ematea pleguan araututako prozeduraren arabera, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratuz eta Bandoa plazaratuz.



Berastegi
Udala



HIRUGARRENA: Alkate Lehendakariari esku ematea erabaki hauek gauzatu daitezen beharrezkoak diren agiriak sinatu ditzan.

BOSGARREN PUNTUA:

2020/01 KREDITU ALDAKETA ONARTZEKO PROPOSAMENA

Alkatetzak agindurikoa betez Idazkaritza-Kontu-hartzaitzak aurtengo udal aurrekontuari dagokion kreditu aldaketa 01/2020 espedientea osatu du eta berau ikusi da.

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 601.01.164.00 2020	Elduko hilerriko teilatuaren konponketa	0,00	14.500,00	14.500,00
1 226.99.920.01 2020	Datu babesen kudeaketa	0,00	6.200,00	6.200,00
1 131.01.332.10 2020	LABORALAK. ALDARTEKOAK-LIB	19.000,00	15.600,00	34.600,00
1 160.01.332.10 2020	GIZARTE SEGURANTZA. LIBURUZAINA ETA KULTURA	11.000,00	10.000,00	21.000,00
1 131.01.330.00 2020	KULTUR DINAMIZATZAILEA	15.000,00	15.600,00	30.600,00
GUZTIRA		80.000,00	61.900,00	141.900,00

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 870.01.000.00 2020	KREDITU GEHIGARRIAK	61.900,00
FINANTZAKETA GUZTIRA			61.900,00

Kontuan harturik espediente honetan barneraturiko Alkatetzaren Memoriak diona, non agerian jartzen da, funtsean, espediente honek honako beharrei erantzuten diela.

Eta besterik gabe, espedientea ikusita gaiaren bozketa egin da, honako emaitzarekin.



Berastegiko
Udala



Aldeko botoa eman dute: EH-BILDUKO 6 zinegotziek eta BEASTI BIZIko 3 zinegotziek, hau da aho-batez onartzen da.

Hori dela eta, Udalbatzak, aho batezko adostasunez ,

ERABAKITZEN DU:

LEHENA:

2020ko Udal Aurrekontuaren Kreditu Aldaketa 01/2020 kreditu aldaketa proposamena hasierako izaeraz onartzea.

BIGARRENA:

Kreditu aldaketa hau arauzko eran jendaurreko erakustaldian jartzea.

SEIGARREN PUNTUA:

ORDENANTZA FISKALEN ORDAINTZEKO EPEEN ALDAKETA ONARTZEKO PROPOSAMENA

Alarma egoera arautzen duten dekretu eta xedapen orokorrek ezarri dute, administrazio epeak etenda geratu direla, zerga arloko epeak izan ezik.

Nolanahi ere, Berastegiko Udalak, egutegi fiskala aldatzeko eskumena du, eta beraz, alarma egoera honen aurrean, eta honek eragindako zailtasunak ikusita, udalak erabaki du aldatzea, eta udal zerga eta tasak ordaintzeko epeak luzatzea, herritarren betebeharrak horiek betetzeko erraztasunak izan ditzaten.

Egutegi fiskal berriak, aldaketa nagusia hau da: Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko zerga: helbideratuta dauden autoen gaineko zergaren ordainagiriak irailaren 1ean kobratuko dira.

Aldeko botoa eman dute: EH-BILDUKO 6 zinegotziek eta BEASTI BIZIko 3 zinegotziek, hau da aho-batez onartzen da.

Hori dela eta, Udalbatzak, aho batezko adostasunez ,

ERABAKITZEN DU:

LEHENA:

Egutegi fiskala aldatzea.



Berastegiko
Udala



ZAZPIGARREN PUNTUA:
ERREGU ETA GALDERAK

Puntu honetan, lehendakaritzak bertaratutakoei luzapena egiten die interesgarriak deritzoten galde-
eskeak egin ditzaten.

Ez da inongo erregu edo galderarik aurkezten.

Egoera honetan, 19.45 ordu direnean, Presidentziak batzarra amaitutzat jotzen du, akta hau egiten
delarik, nik, idazkari honek, diodanez gertaturiko guztiaren islada zehatza dena. Fede ematen dut.

O.E.
Alkateak,

Udaleko Idazkari-Kontu-hartzailea,

Amaia Azkue Eizagirre,

Maria Pilar Garmendia Miguel,



Berastegiko
Udala



I. ERANSKIN



Berastegiko
Udala



BERASTEGIKO ATEGI ERAIKINEKO TABERNA-JATETXEA USTIATZEKO AUKERA EMAKIDA ADMINISTRATIBO BIDEZ EMATEKO LEHIAKETA IREKIA ARAUTZEKO BALDINTZA EKONOMIKO ADMINISTRATIBOEN PLEGUA.

PLIEGO DE CONDICIONES ECONOMICO-ADMINISTRATIVAS PARA EL CONCURSO ABIERTO PARA CONCESION ADMINISTRATIVA DE EXPLOTACION DEL BAR-RESTAURANTE EN EL EDIFICIO ATEGI DE BERASTEGI

1.- KONTRATUAREN HELBURUA.

Kontratuak, lehiaketa bidez Berastegiko ategi eraikineko Taberna-Jatetxearen ustiakuntzarako emakida administratiboa ematea du helburutzat.

Halaber, erabilpenari atxikiriko Udaletxeko ondorengo elementu hauek: tabernako aldea, sukaldea, almazena, komuna eta Udal honen jabetzakoa den altzari, tresneria eta ekipoa, Baldintza Plegu honen eranskinean zehazten direnak.

2.- KONTZESIOAREN IRAUPENA.

Emakidak, kontratua sinatzearen egunetik sei hilabeteko probaldia izango du, eta ondoren, 2 urte iragan arte iraungo du, beste bi urtez luzatu ahal izango delarik, kontratua bukatu baino gutxienez BI HILABETE lehenago hitzartutako baldintzetan.

Bi aldetakoren batek kontratua ez luzatzea erabakiko balu, kontratua bukatu baino hiru hilabete lehenago beste aldeari jakinarazi beharko lioke.

1.- OBJETO DEL CONTRATO.

El objeto del contrato es la concesión administrativa de la explotación del Bar-Restaurante en el edificio Ategi de Berastegi mediante concurso.

Asimismo, comprende los siguientes elementos afectos a dicho uso de la Casa Consistorial: la zona del bar, almacén, cocina, baño y mobiliario, utensilios y equipo, propiedad de este Ayuntamiento, que se relaciona en el Anexo de este Pliego.

2.- DURACIÓN DE LA CONCESIÓN.

Se establece un período de seis meses de prueba a partir de la firma del contrato; una vez transcurrido, la duración de la concesión será de 2 años, prorrogable por otros 2 en las condiciones que se pacten con una antelación, de por lo menos de DOS meses, antes de la finalización del contrato.

Si alguna de las partes decidiese no prorrogar el contrato, deberá comunicarlo a la otra, con una antelación de tres meses, a la fecha de finalización del mismo.



Berastegiko
Udala



3.- KANONA

Eskatzen den kanona 0€-koa izango da sei hilabeteko probaldian, hau igaro ondoren eta kontratuak jarraipena badu, hileroko kanona 200€-koa izango da.

Udaletxeko altxortegian diru sarrera egin beharko da, hilabete guztietako amaieran.

Kanona urtero errebisatuko da, urtarrilaren 1ean, dagokien erakunde ofizialak argitaratzen duten E.A.E.ko bizitzaren hazkunde indizea, KPIren arabera.

4.- EMAKIDAREN EZAUGARRIAK.

Emakidadunaren betebeharrak ondorengo hauek izango dira bereziki:

a) Establezimendua erabilpen baldintza, txukuntasun eta osasun baldintza egokietan mantendu beharko du, eta uzten zaizkion elementu guztiekin beharrezko arreta eta ardura jarri beharko ditu.

b) Mantenimendu egokia ziurtatzeko dagozkion konponketak eta erabiltzaileek egindako hondaketak bere kontura egin beharko ditu, 500€ baino gutxiago bada;

3.- CANON

El canon exigido será de 0€ en los seis primeros meses; después de que trascurra el periodo de pruebas y si el contrato continua en vigor el canon exigido será 200€ mensuales, IVA incluido.

Este canon será abonado al final de cada mes en la Tesorería municipal.

El canon se revisará anualmente con efectos de 1 de enero de cada año, de acuerdo con el incremento del Índice de Precios al Consumo (IPC) de la C.A.P.V., publicado por los Organismos Oficiales correspondientes.

4.- CARACTERÍSTICAS DE LA CONCESIÓN.

Serán obligaciones del concesionario, en especial las siguientes:

a) Mantener el establecimiento en todo momento en perfectas condiciones de utilización, ornato y salubridad, teniendo con todos los elementos que se ceden, el esmero y cuidados necesarios, siendo por su cuenta las obras y reparaciones precisas, que se produzcan por el uso. Así, tendrá la obligación de pintar el local cada dos años.

b) Efectuar por su exclusiva cuenta las reparaciones para asegurar su perfecto mantenimiento e incluso de los deterioros originados por los usuarios, siempre y



Berastegi
Udala



kopuru horretatik gora udala izango da arduraduna.

cuando el coste sea inferior a 500€; si el coste asciende a esta cifra, será el ayuntamiento el responsable de ello.

c) Tabernaren eta bere etxalekuen garbiketa eta zaintzea.

c) Limpieza y cuidado del bar y sus dependencias.

d) Kanonaren ordainketa, 3.atalak dionaren arabera.

d) Abonar el importe del canon, de acuerdo con la cláusula 3^a.

e) Kontratua bukatzean altzari, tresneria eta higiezinak, jasotzen dituen egoera berean itzultzea, eta eskuragarri uztea Udalari.

e) Devolver los elementos muebles e inmuebles y utensilios, al término del contrato, y poner los mismos, a su término, a disposición del Ayuntamiento.

f) Ogasun publikoari kontratazio honegatik dagozkion zergak ordaintzea, bai esleipenari zuzenean bai zerbitzuaren jarduerari dagozkionak, zeren behinbetiko fidantza itzuli aurretik zerga obligazio hauek betetzen dituela ziurtatzea eskatuko zaio.

f) Satisfacer a la Hacienda Pública, los tributos con que se encuentra gravada esta contratación, tanto en el aspecto puramente formal de la adjudicación, como en el ejercicio del servicio, a cuyo efecto antes de proceder a la devolución de la fianza definitiva, deberá encontrarse al corriente del pago de estas obligaciones fiscales.

g) Halaber, ura, argia gasa eta zaborraren gastuak eta zerbitzuaren funtzionamendurako beharrezko diren beste guztiak ere ordaintzea.

g) Así mismo sufragar el coste de los servicios de agua, luz, gas, basuras, y demás que precise para el normal funcionamiento del servicio.

h) Emakidadunak Taberna-Jatetxea egunero 9,00etatik 22,00etara irekitzeko obligazioa izango du astean zehar; asteburuetan eta jaiegunetan 23,00ak arte luzatu ahal izango delarik.

h) El adjudicatario, tendrá obligación de abrir el Bar-Restaurante, todos los días, en horario mínimo de 9,00 a 22,00 horas de lunes a viernes; pudiéndose alargar hasta las 23:00 los fines de semana y festivos.

Bi aldeek aurrez adostutako egun bat jaiegun izan daiteke, beti ere astean zehar

Se podrá cerrar un día a la semana, en día laborable fijado de antemano por ambas partes.



Berastegi
Udala



Era guztira hilabeteko oporrak egiteko eskubidea izango du, bi 15 eguneko oporralditan, baina hauek ez dira izango ez Eguberritan, ez Herriko Festetan. Egutegi hau alda daiteke bi aldeek ados jarri ezker.

i) Zerbitzuaren tarifak, era guztira mota honetako establezimenduetan normalak direnak izango dira.

Jubilatu elkarteko bazkideek zerbitzu normalak baino %50a merkeago izango dituzte tabernako zerbitzuak; jatetxeak berriz, guztiek berdina

Tutoretzapeko pisuen erabiltzaileek jatetxean bazkaldu edo afaltzeko aukera izango dute, Udalak ezarritako 5 euroko prezioan.

j) Esleipendunak zerbitzuaren ustiapen eskubidea ezingo du eskualdatu edo laga, heriotza kasuan ezik, eta orduan derrigorrezko oinordekoei, baldin badaude, indarrean dagoen legediaren arabera. Kasu honetan Udalak kontratua bertan behera utzi dezake indemnezio eskubiderik gabe.

k) Baita ere esleipendunaren betebeharrak izango dira ondorengoak:

- Eraikineko arkupea garbitzea.

l) Esleipendunak eta bere zerbitzura

En todo caso tendrá a un mes de vacaciones al año, en dos períodos de 15 días, que no podrán coincidir con el periodo vacacional de Navidad, ni con las Fiestas patronales. Este calendario podrá ser modificado por acuerdo entre las partes

i) Las tarifas del servicio, serán en todo caso las normales en este tipo de establecimientos.

Los/as socios/as de la Asociación de Jubilados/as tendrán un 50% de descuento en los servicios del bar respecto a los servicios normales, mientras que los del restaurante tendrán los mismos servicios

Los usuarios de los pisos tutelados tendrán opción de comer o cenar en el restaurante por un precio establecido por el ayuntamiento de 5€.

j) El adjudicatario no podrá traspasar ni ceder el derecho de explotación del servicio, salvo en los casos, de fallecimiento y a favor de los herederos forzosos, si los hubiere, en las condiciones establecidas en la legislación vigente. En este caso, el Ayuntamiento podrá denunciar el contrato sin derecho a indemnización.

k) Así mismo serán obligaciones del adjudicatario:

.- Limpieza del arkupe del edificio.

l) Las relaciones del adjudicatario y del



Berastegiko
Udala



dagoen pertsonalak publikoarekin harreman egokia izan beharko du. Halaber, Udalarekin eta publikoarekin harremana izan behar duen eta publikoarekin harreman zuzena duen pertsonalak euskaraz aritzeko gaitasuna izan beharko du.

m) Taberna-Jatetxe jarduerari dagozkion eta indarrean dauden osasun eta osasungarritasun xedapenak betetzea. Halaber lan legedian eta gizarte segurantzakoan ezarritakoa bete beharko du. Esleipendunak obligazio hauek ez betetzeak ez dio Udalari inolako erantzukizunik erakarriko.

n) Administrazioari eta hirugarrenei egiten dizkien kalteak indemnitatzea. Horretarako esleipendunak hirugarrenei sorturiko kalteei aurre egiteko erantzukizun zibila babestuaz 150.000.- €-ko aseguru poliza kontratatu beharko du.

ñ) Tabernan sarrera debekatua izango dute zakur, katu eta bestelako animaliek.

o) Eskainitako zerbitzuak bertako produktuen erabilera ahalbidetu beharko du.

p) Ostaturen kudeaketari buruzko formakuntza saioak eginda izatea.

personal a su servicio, con el público deberán ser correctas en todo momento. Así mismo la persona interlocutora con el Ayuntamiento, así como el personal a su servicio, que tenga contacto directo con el público, deberá conocer el euskera a nivel de conversación.

m) Cumplir todas las disposiciones vigentes, en materia de sanidad y salubridad que le sean aplicables al servicio de bar-restaurante. Así mismo, las que correspondan en materia laboral, de Seguridad Social y de Seguridad e Higiene en el Trabajo. El incumplimiento de estas obligaciones por parte del adjudicatario, no implicará responsabilidad alguna para el Ayuntamiento.

n) Indemnizar los daños y perjuicios que se causen a la Administración o a terceros. En este sentido, el adjudicatario deberá suscribir una póliza de seguros, que asegure la responsabilidad civil ante terceros, de 150.000 €.

ñ) No se permitirá la entrada a perros, gatos y demás tipos de animales.

o) El servicio ofrecido garantizará el uso de productos locales.

p) Haber realizado sesiones formativas sobre gestión de estatus.



Berastegi
Udala



Udalak, emakida kontratuari komenigarriak deritzon aldaketak egin ahal izango dizkio. Honek emakidadunari kalterik eragingo balio ordainduko lizkioke, benetako kalte ekonomikorik neurtzeko modurik legokeen guztietan.

Emakidunaren eskubideak ondorengo hauek izango dira: Kontratua formalizatuta, adjudikazioduna zerbitzuaren kargu egingo da, baita ere Udalak zerbitzua prestatzeko uzten dizkion tresneri, altzari eta higiezinena, eta dagozkion baimenak lortuta, mota guztietako edari eta janariak eta kontratuaren helburu diren zerbitzuak saldu ditzake.

5.- UDALAREN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK.

Udalak, jabea denez, edozein garaitan beharrezko derizkion obra, berritze eta konponketak egin ahal izango ditu bertan. Halaber, Oinarri hauek esleipendunari ematen dizkieten eskubideen erabilpen eta baliatzea mantentzeko obligazioa du Udalak. Era guztitara, Korporazioak alogera deuseztatzeko ahalmena izango du, interes orokorreko zirkunstantziak hala justifikatuko balute. Bi kasuetan legozkioken kalteak ordaindu beharko litzaizkiokeelarik

Halaber, adjudikatzailleak utzitako higiezinetan hobekuntza edo berritze obrak, mantentze edo konponketak soilik ez direnek, gauzatu nahi baditu, Udalari eskatu

El Ayuntamiento podrá imponer las modificaciones que considere convenientes al contrato de concesión, con la compensación económica que hubiese lugar, siempre que de la misma, se derivase un perjuicio económico real y evaluado para el concesionario.

A su vez, serán derechos del adjudicatario: Formalizado el contrato, el adjudicatario se hará cargo del servicio y de los utensilios, elementos muebles e inmuebles, que el Ayuntamiento cede para la prestación del servicio y podrá expender, previas las autorizaciones correspondientes, todo tipo de bebidas y comidas, y demás servicios objeto del contrato.

5.- DERECHOS Y DEBERES DEL AYUNTAMIENTO.

El Ayuntamiento como propietario, podrá acordar y llevar a cabo en cualquier época las obras, reformas y reparaciones que considere necesarias en el mismo. Así mismo el Ayuntamiento se obliga a mantener al adjudicatario en el uso y disfrute de los derechos que estas Bases le conceden. En todo caso, la Corporación podrá dejar sin efecto el arrendamiento, si lo justificaran circunstancias sobrevenidas de interés público. En ambos casos, mediante resarcimiento de los daños que se causaren, o sin él cuando no procediere.

Así mismo el adjudicatario deberá solicitar y obtener autorización del Ayuntamiento, para ejecutar obras de mejora o de reforma, en los bienes inmuebles cedidos, que no sean de simple conservación



Berastegi
Udala



eta honen baimena lortu beharko du. Eta era guztira kontratu bukaeran Udalaren jabegoan geratuko dira indemnizazio eskubiderik gabe.

o reparación, que en todo caso quedarán en propiedad del Ayuntamiento, a la terminación del contrato, sin derecho a indemnización.

6. ESKAINTZAILEAK.

Eskaintzaileak izan daitezke, ekiteko ahalmen osoa duten pertsona natural edo juridikoak, Administrazio Publikoetako Kontratuen testu berregina onartzen duen, ekainaren 16ko 2/2000 Errege Dekretu Legegilearen 20. artikuluan adierazitako kontratatzeko debeku arrazoietakoa bakar bat ere ez badute behintzat.

Gainera, pertsona fisikoak, ondorengo baldintzak bete beharko dituzte :

- Adin nagusikoak izatea.
- Euskaraz, elkarrizketa mailan eta oinarrizko idazkeran behintzat aritzeko gai izatea.
- Pertsona juridikoen euskara mailari dagokionez, zerbitzu zuzenean eskaintzen duten pertsonak euskaraz elkarrizketa jarraitzeko eta oinarrizko idazkeran aritzeko gai izan beharko dute.
- Euskal prentsa izatea eta telebistan euskal kateak martxan izatea lehenetsiko da.

7.- PROPOSIZIOAK.

Proposizioak, Udaleko Idazkaritzan

6.- LICITADORES.

Podrán ser licitadores las personas naturales o jurídicas, que tengan plena capacidad de obrar y no se encuentren incurso en ninguna de las causas de prohibiciones para contratar, señaladas en el art. 20 del Real Decreto Legislativo 2/2000, de 16 de junio, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas.

Además las personas físicas, deberán reunir las siguientes condiciones:

- Ser mayor de edad.
- Conocimiento de euskera a nivel de conversación y escritura básica.
- En el caso de las personas jurídicas, en relación con el euskera, se tendrá que asegurar, que en todo momento, todas las personas que presten directamente el servicio, dominen el euskera a nivel de conversación y escritura básica.
- Se priorizará la presencia de la prensa vasca y la puesta en marcha de cadenas de televisión vascas.

7.- PROPOSICIONES.

Las proposiciones se presentarán en la



Berastegiko
Udala



aurkeztu beharko dira, dagokion iragarkia argitaratu ondorengo 26 egun naturaletako epean (astelehenetik ostiralera, 8statik 15etara bitartean aurkeztu beharko dira).

Secretaría del Ayuntamiento, en el plazo de 26 días naturales a partir de la publicación del anuncio correspondiente (de lunes a viernes de 8 a las 15 horas).

Eskaintzaileek kartazal itxi batean aurkeztu beharko dituzte proposizioak, bertan honakoa idatziko dutelarik: "BERASTEGIKO ATEGI ERAIKINEKO TABERNA-JATETXEA USTIATZEKO EMAKIDARAKO LEHIAKETAN PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA".

Los licitadores presentarán sus proposiciones en un sobre cerrado bajo la inscripción "PROPOSICIÓN PARA TOMAR PARTE EN EL CONCURSO PARA LA CONCESIÓN DE LA EXPLOTACIÓN DEL BAR-RESTAURANTE DEL EDIFICIO ATEGI DE BERASTEGI".

Kartazalean ondorengo ereduko proposamena ere sartu beharko da:
ESKAINZAILEA

En el sobre se incluirá la proposición conforme al siguiente modelo:

LICITADOR

Izen-
Abizenak:.....
.....N.A.N.-ren
zk:.....
Helbidea:.....
.....
Bere izenean:
Ondorengoaren ordezkarigisara:
Berastegiko Ategi eraikineko Taberna-Jatetxea ustiatzeko emakidarako lehiaketaren berri izanik, berau betetzeko hitza ematen du, Udalak onartutako Baldintzen Zerrenda beteko duelarik.

D/Dña
..... con domicilio en
y con D.N.I. nºen nombre propio (o en representación de)
enterado del concurso para la concesión de la explotación del bar-restaurant del edificio Ategi de Berastegi, se compromete a llevar a cabo el mismo con sujeción al Pliego de Condiciones aprobado por el Ayuntamiento.

Berastegin, 2020koa

Berastegi, a dede 2020

SINATUA.

FIRMA.



Berastegiko
Udala



Proposizioaz gain, ondorengo agiriak aurkeztuko dira:

a) Eskaintzailea bere izenean aritzekotan, N.A.N.-ren agiria. Beste pertsona edo entitate baten izenean aritzekotan, ahalorde notariala eta legalizatua.

b) Eskaintzailea pertsona juridikoa bada, Merkataritza-Erregistroan egokiro zigilatutako eraketa edo aldaketa eskritura eta identifikazio fiskalaren zenbakia, Europako Elkarteko partaide diren estatu batekoa izaki espainiarrak ez diren enpresariak direnean, nahikoa izango da erregistro profesional edo komertzial batean inskribatua dagoela egiaztatzea baldintza hau dagokion Estatuko legediak ezarria bada.

c) Herri Administrazioetako kontratuen Legeko 20 art.-an adierazten diren kontratatzeke debekuetakoren bat ez duela zehazki frogatzen duen aldarrikapena.

d) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzako betebeharrak burutzeko gai dela egiaztatzeke dagozkion erakundeetan igorritako ziurtagiriak. Hauek lortzea ezinezkoa bazaie, ziurtagirion eskaera baten bidez ziurtatu ahal izango dute.

A la proposición se acompañará la siguiente documentación:

a) Documento nacional de identidad si el licitador actúa en nombre propio. En el caso de que se actúe en representación de otra persona o entidad, poder bastantado y legalizado.

b) Cuando el licitador sea persona jurídica, escritura de constitución o modificación debidamente inscrita en el Reg. Mercantil y número de identificación fiscal, siendo suficiente cuando se trate de empresarios no españoles de estados miembros de la Comunidad Europea, acreditar su inscripción en un registro profesional o comercial cuando este requisito sea exigido por la legislación del Estado respectivo.

c) Declaración expresa responsable de no estar incurso en ninguna de las prohibiciones de contratar enumeradas en el artículo 20 de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas.

d) Acreditación de hallarse al corriente del cumplimiento de las obligaciones tributarias y de la Seguridad Social mediante certificaciones emitidas por las correspondientes instituciones, que podrá ser sustituida, si esto no es posible, por una declaración responsable en tal sentido y por



Berastegi
Udala



la solicitud de las certificaciones, en su caso.

e) Proposatzaileak sinatutako txostena. Bertan, bere aurretik egindako lanak, tabernan egin beharrekoekin zerikusia dutenak, behar bezala justifikatuta. Egoki irizten diren gainerako zehaztasunak ere adierazi ahal izango dira, egin beharreko lanekin zerikusia badute eta pertsona juridikoei dagokienean, berauen ezaugarriak eta eskaintzaile guztiei dagokienean jarduera planak eta emakidari gehitu beharreko hobekuntzak ere bai, hala badagokie.

e) Una memoria firmada por el proponente, que expresará su historial profesional y trabajos desarrollados que tenga relación con el trabajo a desarrollar, debidamente documentados. Se pueden incluir las demás circunstancias que se consideren, pueden incidir en el desempeño de los trabajos a realizar, incluido, en su caso, en caso de personas jurídicas, características de la misma, y en todo caso, para todos los proponentes Plan de Actuación y mejoras a introducir en la concesión, en su caso

8.- PROPOSIZIOAK ZABALTZEA ETA ADJUDIKAZIOA.

Proposamenak aurkezteko epea bukatuta ondoreneko lanegunean zabalduko dira, Udaletxe honetako Batzar Aretoan.

Kontratazio mahaia honela osaturik egongo da:

-Lehendakaria: Korporazioko Alkate-Lehendakari Jn.a edo honek eskuordetzen duen Zinegotzia.

-Bokalak: Bi zinegotzi, Korporazioa ordezkatzeko.

-Idazkaria: Korporazioko edo honek eskuordetzen duen pertsona.

Lehiaketan, ondorengo atalak hartuko dira kontutan:

8.- APERTURA DE PROPOSICIONES Y ADJUDICACIÓN.

La apertura de proposiciones se realizará en el primer día hábil siguiente a aquél en que termine el plazo de presentación de proposiciones.

La Mesa de Contratación estará formada de la siguiente forma:

- Presidente: El Sr. Alcalde-Presidente de la Corporación o Concejal en quien delegue.

- Vocales: Dos concejales en representación de la Corporación.

- Secretario: El de la Corporación o persona en quien delegue.

A efectos del concurso se valorarán los siguientes aspectos:



Berastegiko
Udala



- Lan historiala; betetako lanpostuak eta egin beharrekoarekin zerikusia duten lanak eta jarduera plana.

Egindako lanak, dokumentu ofizialekin justifikatu beharko dira.

- Berastegin erroldatua gutxienez duela bost urtetatik gaur egun arte.

Dena dela ere, lehiaketa hutsik gelditu daiteke aurkeztutako proposizioak ikusitakoan, eskaintzaileak zerbitzua eskaintzeko behar diren baldintzak betetzen ez dituztela irizten bada.

Kontratazio mahaiak aurkeztutako proposizioak aztertuko ditu eta akta eta esleipen proposamenarekin batera aurkeztuko ditu Osoko Bilkuran, honi egokituko zaiolarik erabateko esleipena erabakitzea.

Mahaiak eskaintzaileekin mintzatu ahal izango da, aurkeztutako proposamenen edukia argitu eta kontrastatzeko eta proposatzaileen izaera aztertzeko.

- Historial profesional o empresarial, tareas y trabajos desempeñados que tengan relación con el trabajo a desempeñar y plan de actuación.

Los trabajos desempeñados deberán ser justificados con documentaciones oficiales.

- Estar empadronado en Berastegi desde al menos cinco años hasta la actualidad.

En todo caso, se podrá declarar desierto el concurso, a la vista de las proposiciones presentadas, si se estima que los proponentes no reúnen las condiciones necesarias para prestar el servicio.

La Mesa de Contratación, examinará las proposiciones presentadas, y las elevará, junto con el acta y la propuesta de adjudicación, que deberá ser motivada, al Pleno del Ayuntamiento, a quien corresponderá, la adjudicación definitiva.

La Mesa podrá mantener reuniones con los licitadores, al objeto de aclarar y contrastar el contenido de las propuestas presentadas y examinar a los proponentes.



Berastegi
Udala



9.- ESLEIPENA ETA FORMALIZAZIOA.

Esleipena proposizioak irekitako biharamunetik hasita hilabeteko epean egingo da.

Kontratua Kontratazio organoak egindako esleipenaren bidez hobetuko da.

Esleipena, esleipendunari jakinaraziko zaio eta berak, jakinerazpena jasotako biharamunetik zenbatzen hasi eta hamabost egun eragínkorretako epean ondorengo iharduerak egin beharko ditu:

- a) Erabateko bermea osatu.
- b) Proposizioarekin batera bere zergazko betebeharrak eta gizarte segurantzakoak betetzen dituela egiaztatetik izan ez balu, bete behar horiek burutzeko gai dela egiaztatzen duten ziurtagiriak ekarri beharko ditu.
- c) Udal honetan agertzea, kontratua agiri administratiboaren bidez egikaritzeko.
- d) Aseguru poliza kontratatzea.

Ez balitz kontratua egikaritutako kontratatzaileari eragotzi dakizkiokeen arrazoiak direla eta, udalak beronen erabakikuntza hartu dezake, interesdunari jakinarazi ondoren eta kalte ordainak indemnitzatzeko aginduz.

9.- ADJUDICACION Y FORMALIZACION.

La adjudicación se realizará en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente de la apertura de las proposiciones.

El contrato se perfeccionará mediante la adjudicación realizada por el Órgano de Contratación.

La adjudicación será notificada al adjudicatario, el cual, en el plazo de quince días hábiles contados desde el siguiente al de la notificación, deberá realizar las siguientes actuaciones:

- a) Constituir la garantía definitiva.
- b) En el caso de que con la proposición no hubiese acreditado hallarse al corriente del cumplimiento de sus obligaciones tributarias y de Seguridad Social, deberá aportar las certificaciones administrativas que acrediten el cumplimiento de tales obligaciones.
- c) Comparecer, finalmente, en este Ayuntamiento para formalizar el contrato en documento administrativo.
- d) Contratar la póliza de seguros.

En el caso de falta de formalización del contrato por causas imputables al contratista, el Ayuntamiento puede acordar la resolución del mismo, previa audiencia del interesado, con indemnización de daños y perjuicios.



Berastegi
Udala



10.- ERABATEKO BERMEA ETA KONTRATUA.

Emakidunak, lehen sei hilabetei dagozkien 1.000 €.tako bermea ipini beharko ditu kontratua egikaritu aurretik, emakidaren betebeharrak egoki ez burutzea ekidite arren.

11.- IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA.

Baldintza hauen arabera egiten den kontratuak izaera administratiboa izango du eta Administrazio Publikoetako kontratazioari aplikagarri ez diren arauetan aurrikusirik ez dagoen guztian.

Klausula Administratiboen Zerrenda honen eta espedienteari erantsitako gainerako agiri tekniko guztien artean kontraesanik balego, zerrenda honetan erabakitakoa bete beharko da.

12.- JURISDIKZIO AGINPIDEDUNA

Kontratuarekin zerikusia duten arazo eztabaidagarriak, administrazioarekiko auzitarako jurisdikziora ezarriko dira, hala ere, bi aldeak beraien arteko auziak arbitrajera ezarri ahal izango dituzte, indarrean dagoen legedian erabakitakoa jarraituz.

10.- GARANTIA DEFINITIVA Y CONTRATO.

El concesionario deberá depositar con carácter previo a la formalización del contrato, la garantía de 1.000 €, para responder del incumplimiento de las obligaciones de la concesión.

11.- NATURALEZA Y REGIMEN JURIDICO.

El contrato que en base a este pliego se realice, tendrá carácter administrativo y en todo lo no previsto, se estará a lo dispuesto en las normas aplicables a la contratación de las Administraciones Públicas.

En caso de contradicción entre el presente Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares y el resto de la documentación técnica unida al expediente, prevalecerá lo dispuesto en este pliego.

12.- JURISDICCION COMPETENTE.

Las cuestiones litigiosas que se deriven del contrato se entenderán sometidas a la jurisdicción contencioso-administrativa. No obstante lo cual, las partes pueden acordar el sometimiento de sus litigios a arbitraje, conforme a lo establecido en la legislación vigente.



Berastegiko
Udala



DILIGENTZIA.-

2020ko maiatzaren 14an egindako batzaraldian Udalaren Osoko Bilkurak onartutako Baldintzen Zerrenda.

O.E.

ALKATE-LEHENDAKARIA

DILIGENCIA.-

Pliego de Condiciones, aprobado por el Pleno del Ayuntamiento, en sesión celebrada el día 14 de mayo de 2020.

IDAZKARIA



Berastegiko
Udala

